

Andoaingo kale hezitzaileen lana liburu batean bildu da

Herenegun aurkeztu zen "Kale heziketa Andoainen 1994-2006" liburua.

Bertan, 1994tik "Hezi-zerb" elkarteak antolatzen duen "Kale heziketa programa" horren ibilbidea ageri da. 10-18 urte bitarteko gaztetxoei, ohiko heziketaz kanpo (eskola, familia...), dituzten helburu eta beharrak lantzeko aukera eskaintzen zaie. Liburua eta ekimena bera, hainbat herritarren elkarlan handiaren fruitua izan da; besteak beste, elkarte, hezitzaile talde, Gizarte Zerbitzuetako langile, Udala, ikastetxe, guraso eta nola ez, gaztetxoen.

GAZTEEKIN, GAZTEENTZAT

Kalean, gazte txokoetan dute euren presentzia kale hezitzaileek. **Pili Azpeitia, Iker Alustiza** eta **Karlos Arguilearekin** mintzatu gara. Lehenengo biak kale hezitzaileak dira; Arguilea, aldiz, programako koordinatzailea. Azken horren hitzetan, "programaren helburua gazteekin eta gazteentzat egotea da, gazteak dauden lekuetan". Izan ere hezitzailea duen, denboran zehar gauzatzen den eta hezitzaile eta gazteen arteko harremanari zentzua ematen dion proiektua da.



Basteron aurkeztu zuten kale hezitzaileen lana biltzen duen liburua.

© Xabier Ubeda

Hala, koadrilaka edo lagun taldeka lan egiten dute. Arratsaldero, bildu eta hainbat jardura antolatzen dituzte. Ekin-tza horiek, ordea, ekimenaren proiektu hezitzaileak lantzeko bitarteko hutsak dira. "Ekin-tzari ez diogu garrantzirik ematen; kontua, haiekin egoteko aukera bat izan eta gazteek ezinegonak, interesak edo zailtasunak elkarbanatu ditzaketen leku bat izatea da" adierazi du Iker Alustizak.

Hain zuzen, askatasunean eta negoziazioan oinarritutako programa da kale hezitzaileen. Askatasuna, gazteek dute-

lako ekimenean parte hartu eta inplikazio maila erabakitzeko aukera. Ikerren esanetan, "gazteek erabakitzen dute gurekin egon edo ez". Negoziazioa, kale hezitzaileen eta gazteen artean sortzen den eta lantzen den harremanean, denen artean hartzeko erabakiak. Pili Azpeitiaren esanetan, "egunero negoziatzen ari gara: zer ardura hartu nahi dituzten, zeintzuk diren mugak, arauak... Denon ardura baita zerbait egiten dugunean ondo ateratzea". Behin hori guztia definituta, kale hezitzaileek gazte taldeen beharrak eta hel-

buruak zeintzuk diren detektatu eta gaztetxoei lantzen dituzte. Hala, euren borondatez, bost edo sei koadrila biltzen dira egunero.

TALDEA ETA NORBANAKOA

Hori bai, horrek ez du esan nahi soilik talde mailako helburu edo beharrak lantzen direnik. Lagun talde osoarekin lan egiten dute, lagunek elkarren laguntza jaso baitezakete, baina norbanakako arreta ere eskaintzen da.

(4. orrialdean jarraitzen du)

Andoaingo lehen futbol taldea, igoerarako prest



Joxerra Bengoetxea entrenatzaile eta lehendakaria. © Xabier Ubeda

Lan egitea, konstanteak izatea, entrenatzea eta jendeak ahal duen guztia jartzea... horiexek dira Euskalduna futbol taldearen arrakasta ziurtatzeko osagaiak. Jokalarien erronka ez da baterre makala. Liga azken txanpan sartu da eta igoera fasea jokatzeko azken hilabeteetan erakutsi duten maila hobetu beharko dute. Ikusi behar zer gertatzen den.

(4. orrialdean jarraitzen du)

Plazido Muxika

1906-2006

Urnietako hiztegi-gile eta idazlea jaio zela ehun urte beteko dira

Aiurri

eskualdeko nortasun hitzak



FRUTA ETA BERDUREN IZENAK EUSKARAZ JARTZEKO KANPAINA MARTXAN JARRIKO DA BURUNTZALDEKO DENDETAN

Garaiko fruta eta berdura erosten da gehiena

Fruta eta berdura izango dira gure etxeetan egunerokoan gehientzuen kontsumitzen diren janariak. Dendetan badakite hori, eta arreta handia jartzen diote produkturik onenak egunero aukeratu,

eta jendearen eskura jartzeari. Sektorea gehixeago ezagutu nahi izan dugu.

Buruntzaldeko Udalek sustatu duten ekimena

Buruntzaldeko sei herrietako Euskarako Batzordeak lanean ari dira, herriko komertzioetan euskararen presentzia handitu asmoz. Aurreko alditan arrandegietan, harategietan, ileapaindegietan... egin den bezala, kanpaina honen asmoa da, fruta eta berdura dendetan produktuen izenak euskaraz jartzea eta jendea bultzatzea eguneroko erosketak euskaraz egitera.

Badira janari batzuk gure etxeetan inoiz falta ez direnak. Berdura eta fruta jateko ohitura berriz indarra hartzen ari dela diote dendariak, bolada batean behera egin badu ere, eta gainera, jendeak arreta handiz aukeratzen omen du kalitate oneko produktua. Produktu batzuk urte guztian zehar kontsumitzen dira, baina, gainerantzean garaiko jeneroa nahi izaten du bezeroak.

Garaiak aldatzen ari diren honetan, sektoreak egokitu behar izan du. Adibidez, jendeak gero eta gehiago erosten ditu garbitutako produktuak; edo, negutegiari esker, oinarritzko produktu asko urte garai luzeagoan daude dendetan.

NONDIK EKARTZEN DA?

Denda gehienek leku jakinetatik lortzen dute produktua. Batzuei ekarri egiten diete baina gehienak joan egiten dira erostera, ia egunero. Zubietako Merka Bugati da adibideetako bat edo Ergobiko Coviran... baina joaten dira urrutiago ere, Calahorrara edo Garesera adibidez. Denda handietara, supermerkatuetara-eta, normalean beren hornitzaileek ekartzen dute, baina, ez kasu guztietan.

GARAIA GARAIOA

Garaian garaiko produktua nahi izaten du jendeak, eta ahal bada bertakoa. Negu garaian gehien erosten direnak dira laranjak, platanok, azel-



Fruta eta berdura dendetan egunero-egunero zaharra kendu eta berria jartzen dute aukeran.

Jendeak kalitatea nahi du eta ez zaio axola gehixeago ordaintzea

gak, porruak, orburuak (alkatxofak) eta abar; udaberritik aurrera berriz, marrubiak, ge-

reziak, melokotoiak, lekak (bainak), piperrak eta abar.

Dena dela, gaur egun ia produktu gehienak urte guztian erosteko aukera dago, hego hemisferiotik ekartzen direlako. Adibidez: Indotxinatik grezia, Txiletik marrubia, Hegoafrikatik arana; baina, oso ga-

Dendariak saiatzen dira bertako produktuak ekartzin, tiradizoa dutelako

resti etortzen dira eta jendeak ez ditu gehiegi erosten. Badira produktu batzuk, bestalde, ur-

te guztian kontsumitzen direnak: sagarrak (goldena gehien-gehiena), udareak, tomateak, letxugak, tipulak, baratxuriak, azenarioak eta abar.

BERTAKO PRODUKTUAK

Bertako produktuek tiradizo handia dute eta dendari gehienak saiatzen dira dagoena ekartzen. Hemen gehien egiten diren produktuak dira: errege sagarra, letxuga, porrua, babarruna, leka... Nafarroan eta Araban aukera handia dago: piper, patata, azalore (koliflora), melokotoi, udare...

Produktu exotikoak ere gero eta gehiago ikusten dira, baina, oraindik ez dute jendearen konfiantza gehiegi irabazi. Hala ere, badira asko kontsumitzen direnak: anana (piña) edo aguakatea, esaterako.

PREZIOA ETA KALITATEA

Jendeak kalitatea nahi du eta orokorrean, gehixeago ordaintzea ez zaio axola, aldea izugarria ez bada behintzat. Produktu biologikoen kasuan, kalitatearen adibide garbia izanagatik, oraindik jendea ez dago prezio aldea ordaintzeko prest, proba egin duten dendariak esandakoaren arabera.

ERREZETAK ETA PREZIOAK EUSKARAZ



APIRILA bukaeran, produktuen izenak euskaraz dituzten txartelak banatuko dituzte fruta eta berdura dendetan, lehen arrandegi, harategi, jatetxe eta abarretan egin izan duten bezala. Horrekin bezero-

ak animatu nahi dira erosketak euskaraz egitera. Buruntzaldeko Euskarako Batzordeak martxan jarritako kanpaina da, eta komertzioetan euskararen presentzia areagotzea da helburua. Errezeta liburu txiki bat ere prestatu dute, fruta eta berdurekin egin litezkeen 10 entsalada esplikatzin dituen. Dendan bertan hartu ahal izango da.

ENTSALADA ERREZETAK, FRUTA ETA BERDURA NAHASTUTA

Proiektuan parte hartu nahi izan duten dendetan errezeta liburuak banatuko dituzte. Entsalada errezetak dira guztiak eta modu guztietakoak daude aukeran: Laranja eta gazta urdin entsalada, Mandarina



eta txatka entsalada freskoa, Ahate-arandoi (erronta) eta sagar purez eginiko entsalada epela, Perretxiko, meloi eta urdaiazpiko eta menda freskoz eginiko salteatua... Denak plater goxoak, muxutruk denon eskura.



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.



Fruta denden zerrenda:

ANDOAINGO FRUTA DENDAK

Dendaren izena	Helbidea	Telefonoa
Adarra Izoziak	Plazaola 16	943-590 669
Frutas Anaiak	Goikoplaza 24	943-590 877
Ultramarinos Madinabeitia	Gurmendi z/g	943-592 206
Eroski Supermerkatua	Zumea plaza z/g	943-304 123
Super Amara s.l.	Gudarien etorbidea 36	943-303 521
Super BM	Plazaola 1	943-592 881
Aliprox	Arteta 7-9	943-300 867
Eko Tolosa	Kale Nagusia 33	943-300 075
Jauregi Janaridenda	Larramendi 11	943-590 759
Kale-biki Okindegia	Kaletxiki 20	943-594 437
Iturza	Pio Baroja 5	943-590 451
Ormazabal	Olagain 2	943-591 266
Onda	Bazkardo plaza 5	943-593 078
Aliprox	Ondarreta 12	943-300 760
Junkal	Juan Bautista Erro 2	943-593 653

URNIETAKO FRUTA DENDAK

Dendaren izena	Helbidea	Telefonoa
Comestibles Juani	Idiazabal 10	943-009 172
Autoservicio Goya	Idiazabal 15	943-550 480
Eko-Tolosa	Arantzubi 2	635-700 072
Itxaspe izozki eta gozokiak	Zelaialde 2	943-009 427
Frutería Toñi	Idiazabal 41	605-708 810
Mujika autozerbitzua	San Juan 27	943-009 593
Frutería Urnieta	Idiazabal 20	605-701 556

Rikardo Arregi kazetaritza saria



Eusko Jaurlaritzako eta Andoaingo Udaleko ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten Donostian, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren edizioa prestatzeko. Informazio gehiago Udaleko Euskara lansailean.

Adarrara igoera



Irunberri elkarteko kideek udaberriari ongi etorria eman zioten Adarramendin. Eguraldia aldeko zutela, lagun talde polita irten zen herrigunetik.

HORI DA HORI KABLE FESTA!



Aita Larramendi kalean, Zumea plazatik gertu, kable festa ederra topatu zuen Aiurriko argazkilariak. Ez al da arriskutsua? © Xabier Ubeda



Eusko Jaurlaritza

Kultura Sailak diruz
lagundutako hedabidea

Partida garrantzitsuak jokatu dituzten asteetan

Euskalduna taldearen erronka ez da makala

Denboraldiko azken txanpan. Lehen taldea lehen postuetan. Igoera lortuko al da?

Hala nahiko nuke. Lau partida geratzen dira, gogotsu gaude baina ez dakigu. Lehen postua lortzea zaila izango da, baina bigarrena ez hainbeste, *play off*a jokatu behar baitugu. Bigarrenari utsiko diogula uste dugu. Egoera zaila bizi izan dugu azken bi hilabeteetan. Azterketa garaia hasi da eta jendea lanean dabil. Norberak bere zereginak ditu. Ondorioz, jokalarri gutxiarekin entrenatu dugu eta partidatan hori asko nabaritu da. Baina taldea aurrera aterako dugu.

Zein da aurrean egoteko gakoa?

Lan egitea, konstanteak izatea, entrenatzea eta jendeak ahal duen guztia jartzea. Afizionatu mailan, zure aldetik ez baduzu ezer jartzen, inork ez du kobratzen, ez duzu ezertxo ere egiten. Guk talde ederra dugu, jende jatorra eta gaztea. Taldeak ondo funtzionatzen du. Horren lekuko, antolatzen ditugun afariak.

Euskalduna klubaren erradiografia egin. Zer nolako egoeran zaudete?

Egoera zaila da Euskaldunan, ez baitugu behar beste diru. Laguntza gehiago beti eskatzen dugu. Bederatzi talde gara eta hori guztia aurrera atera behar da. Errealak, enpresek eta Udalak ematen digute diru pixka bat eta horrekin denboraldi guztia igaro behar dugu.



Joxerra Bengoetxea, Euskalduna Futbol taldeko entrenatzailea eta lehendakaria.

Aurten, baliabideak murriztu beharko ditugu. Baina Euskalduna taldeak 90 urteko historia luzea du atzean eta aurrera jarraituko du. Horretarako, ordea, jendeak gehiago konprometitu behar du.

Bateragarria al da entrenatzaile eta presidente izatea?

Ezin da. Inor ez zegoelako, aurten lehendakaritza hartu dut baina uztekoan naiz.

Lehendakari izanda beste gauzak egiten nabil. Ez zait hainbeste gustatzen, entrenamenduetatik asko deszentratzen baitzara. Lan horretan zentratu nahiko nuke berriro, gustoko baitut.

Erabakiorra izango al da aste

hauetan, Andoaingo zaletuen laguntza?

Jendea etortzen da Euskalduna ikustera. Ea denon artean aurrera ateratzen dugun taldea. Beti jaso dugu babesia, baina partida ikusteko Allurralde ez da oso leku ona, aparte samar geratzen baita. Eguraldi onarekin beti ere jende gehiago etortzen da partidak ikustera.

Eta igoera lortzen ez bada zer? Eta, alderantziz, igoera lortuz gero nola ospatuko duzue?

Bigarren postua eskura dezakegu, oraindik *play off* bat jokoa baitugu. Hori lortzea da helburua, baina ez badugu lortzen ez da ezer pasatzen. Irabaziko bagenu, izugarritzko poz hartuko genuke.

Hamabi urtetan lanean gazteen heziketa helburutzat hartuta

Kale hezitzaileen lana

(Lehen orrialdetik dator)

Koadrila osoarekin lan egiten dugu, lagunak hezi egiten dutela ulertzen baitugu eta gu joaten garenean haiek gelditzen dira. Baina gazteek eskatu ahala banaka laguntzen ditugu" adierazi du Azpeitiak.

Hamabi urteko jardunean une gozoak bizi izan dituzten arren, une gogorrak bizitzea ere egokitu zaie. Horien guztien bizipenek ziur aski are

baikorragoa eta hobe egin dute kale hezitzaileen esperientzia. Piliren hitzetan, "irrifarrea sortzen zait. Esperientzia oso positiboa eta pozgarria izan da. Askotan momentuan ez zara egindako lanaz ohartzen. Baina urteak pasa eta gazte bat etortzen zaizunean ezkondu, lana edo pisua aurkitu duela esanez, konturatzen zara zurekin elkarbanatu dituzten gauza horien guztien zati txiki bat zarela eta horrek asko betetzen du".

GARAI BERRIAK, BEHAR BERRIAK

Herria eta inguruak biztanlez hazten ari dira. Horrek gazte, helburu eta behar berriak dakartza. Biztanleri berri horren gaitasuna eta helburu eta behar berriak detektatu eta horiek lantzea dira etorkizunari begira dituzten erronkak. "Andoain hazten ari da eta zonalde berriak sortzen. Auzune berri horietara iritsi nahiko genuke, orain arteko estilo berean" adierazi du Arguileak.

UNAI ETXEBERRIA LEHEN POSTUETAN IGARO ZEN ESKUALDETIK

Ziztu biziko ikuskizuna

Udaberri beteko giroan ekin zioten aste hasieran txirrindulariek Euskal Herriko Itzuliko lehen etapari. Irunen hasi eta herri berean amaitu behar zuten le-

hen lasterketak Urnieta zeharkatu zuen arratsaldeko hirurak aldera.

Argazkiak: **Xabier Ubeda**

Arratsaldeko hirurak izateko ordu erdi pasatxo falta zela, dena prest zuten antolatzaileek Xoxoka gaineko bidean. Urtean zehar herri bide direnak minutu batzuetan txirrindu bide bihurtu eta erreferenteetako bat den iragarki pankarta eseki zuten antolatzaileek. Oraindik, denbora falta bazen ere, zaletuak hurbiltzen hasi ziren. Batzuk bertan dagoen jatetxetik, besteak inguruan bizi diren etxeetatik. Inguruko herrietatik autoz eta bizikleta gainean etorri zenik ere izan zen.

Hala ere, etapa bertatik igarotzeak ez zuen ikusmin handirik piztu. Ikusi zutenek telebista bidez jarraituko zuten lasterketa. Hain zuzen, telebistan ikuskizuna patxadaz jarrai daiteke baina bide ertzezera aterata, begiak itxi eta ireki orduko igarotzen dira txirrindulariak. Xoxoka gainean bezala, ziztu bizian. Argazki kameraren objektiboen begirada zorrotze-



Abiadura bizian igaro ziren profesional mailako txirrindulariak.

© Xabier Ubeda

ko denborarik izan gabe, txirrindulariek segituan igaro zuten Xoxoka gaina. Lehen etapari igaro behar zuten gune garaienetakoa. Hiru txirrindulari nabarmendu ziren bertaratu zirenen txaloen artean: Fedri-

go frantziarra, Vanotti italiarra eta euskaldun bat, Unai Etxeberria. Sei minututik gorako aldea atera zieten atzetik zetozei. Urnieta aldera jais-teko Xoxoka gainean dagoen bihurtu ongi hartzeko

ederki makurtu behar izan zuten txirrindu gainean zihozazenek. Ihesaldi horrek luzatu zuen, bide ertzetik begira egonda, minutu erdia iraun izan ohi duen ikuskizuna. Gaur, amaiera.

TXIRRINDUZALEEN ARTEAN XOXOKAKO GAINAN EGINIKO INKESTA

1. Etapak bertatik bertara ikusteko ohitura al duzu?
2. Txirrindularitza mundua gertukoa duzu?
3. Zeintzuk ikusten dituzu itzuliko irabazle posible gisa?

Argazkiak © Xabier Ubeda



Federico Perez

Lasarte-Oria

1. Urtero etortzen naiz itzulia ikustera baita lan txanda aldatu behar badut ere.
2. Bizikletan ibiltzeari utzi nionean, etortzen hasi nintzen. 1965. urte inguruan hiru etapetan parte hartu nuen Oiartzungo *La Casera* taldean.
3. Itzuliaren aurkezpen ekitaldian izan nintzen. Nahiko talde ona dagoela dirudi. Euskaltel taldea eta Iban Mayo ongi ikusten ditut.



Hilario Lekuona

Urnieta

1. Lasterketa hemendik igarotzen bada, gehienetan etortzen naiz.
2. Ez naiz txirrindularia izan, baina nire kirolik gustokoena da. Txirrindularitza probak beti ikusten ditut: Frantziako Tourra... Afizionatua naiz.
3. Mayo aurten nahiko ondo ikusten dut. Animate beharko zaio, gaur hemendik igaroko da eta. Podiumari begira, faboritorik ez dago.



Maitane Errazkin

Urnieta

1. Hemen bizi naizenez, familian irteten gara ikustera.
2. Afizio handirik ez dugu. Ezagunen bat igarotzen bada bai, baina besteak ez dugu ikusteko ohiturarik.
3. Nik ez dut askorik uler-tzen kontu hauetan. Faboritoen artean bat aukeratu beharra izango banu, Euskaltel-Euskadi taldea aukeratu nuke, bertakoak direlako.



Aitor Aierza

Tolosa

1. Hemen ingurutik igarotzen bada itzulia, urtero etortzeko ohitura izaten dut.
2. Bai, odolean sartuta daramagu. Tolosako jubenilen zuzendaria naiz. Martxoan hasi eta irailera bitarte ia aste-buru guztietan inguruko karrerak ikusten ditut.
3. Faborito garbirik ez dago oraindik. Euskal Herriko bat bat izanaz gero, hobeto.



Joxe Goikoetxea

Lasarte-Oria

1. Inguruko etapa gehienak ikusten ditut. Tourra ikustera joatea ere gustuko dut.
2. Gaztetan txirrinduan ibilia naiz, baina lehian ez, afizionatu gisa. Ormaetxea hil zena oso lagun ona nuen.
3. Euskaltel-Euskadi ez dut ikusten gainerakoen mailan aurten. Iaz ere nahiko urte txarra egin zuten. Bestalde, Kaiku bere mailan nahiko ondo dabil.

Naturaren aldeko astea

Egape ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasle eta irakasleek hondakinen inguruko astean parte hartu dute. Ikastolak bost egun hauetarako eduki eta helburuak gai horrekin lotu ditu. Helburua, haien jarduna hobetzea da. Agenda 21 proiektuak aurten herri mailan proposatzen duen gaitako batekin ere lotuta dago. Hala, astelehenean, goizean zehar, ikasleak herriko hondakinak behatzeko kalera irten ziren. Astelehen bazkaloste eta asteartean, hainbat tailer antolatu ziren ikastolan bertan: kartografia, grafiko, testu edota birziklapen tailerrak, azken horri buruzko hitzaldiaz gain. Adarrara ere joatekoak ziren bertako zaborra bildu eta mendia garbitu asmoz. Bestalde, atzo, panelak, argazkiak edota ikus entzutekoak prestatu zituzten eta gaur horiek guztiak ikusgai izan dira Elizako zimitorioan.



Eteneta eguna

Igandean Eteneta eguna ospatu zuen izen bereko elkarteak. 70 herritar bildu zituen ekimenak. Eguraldi ederrak lagunduta, goizean, Adarra mendia igo zuten. Ingurunea eta historiaurrea ezagutzeko helburu zuen mendi irteeran, besteak beste, elkarteari izena ematen dion Eteneta zutarrira bertaratu ziren, Luis Mari Zaldua adituaren azalpenek lagunduta. Tximistako Egiako mairubaratza, Elurzuloko gentil baratza, Sanson harria, Aballarriko trikuharria edota Arlegorko zabala ere bisitatu zituzten. Bazkalorduan Besabira jaitsi eta indarrak berreskuratzeko Eteneta elkartearen babarrun jatea izan zuten alde zurretik izena eman zuten 50 herritar inguruk.



Aupa Athletic!

Ostra! Reala bigarren mailara jaitsiko dela hi! Hankak dardarka eta burua jirabiraka darabilte azken bolada honetan realzaleek; eta okerrago dena, jokalariek ere bai. Argi gorria piztuta, zuloan, kinka larrian daudelako. Azkenean, horrela gertatzen bada ere, nik ez dut lorik galduko, nire malkoek ez dute putzurik egingo. Agian ez da hain txarra bigarren mailara jaitea; akatsak zuzentzeko krisiak ondo etortzen baitira, eta begi-bistakoa denez Realean badago zer zuzendurik.

Ume nintzenetik futbola gustuko izan baldin badut ere, aitortu behar dut, urteen joanarekin gero eta arreta gutxiago jartzen diodala. Gozatu ederrak hartu izan ditut bai, Pelerekin, Brasil, Argentina edo Holandako selekzioekin; Cruiffek jokatzen zueneko Bartzelona harekin, duela urte batzuetako Milan taldearekin, eta nola ez, inoiz ikusi izan dudana jokalarionenarekin, Maradonarekin. Hark, ez zuen laguntza beharrik izaten, bera bakarrik nahikoa zen partidak irabazteko.

Orain futbol-taldeak enpresa bihurturik daude, eta zorrak egin orduko, diruz laguntzeko prest izaten dituzte bai bankeak bai erakunde publikoak, inongo lotsarik gabe, gainera. Jokalariek berriz, "jokatu" orde, "jolastu", egiten dute, jainkoturik daude gehienak eta kazetari koipe-emeleiz inguratuta bizi dira; bakanak dira, egurra merezi eta egurra jasotzen dutenak. Niri, Kovacevick kobratzen duena ordainduko balidate, ziur izan, Nihat berari ere, nire ondoan lasterka jarriz gero, dordoka herren baten itxura hartuko geniokeela.

Bada Urnietan kirol-lagunarte bat, jende noblez osatua, maiatzak hogeita... Ah ez, barkatu! "28 de mayo 5-0" da bere izena. Duela urte batzuk Realak, Athletic taldearen aurka Anoetan lortutako emaitza betirako gogoan gera zedin jarritako izena. Realaren zaletu sutsuak dira, baina horrez gain, badute beste ezaugarri

bat: Athleticen etsai amorratuak dira. Hori baieztatzen nahikoa izango duzue jakitea Athletic taldeari 5-0ko emaitzarekin irabazten dion edozein talderi, gure herritar hauek, opari bat egiten diola (plaka bat edo). Hori dela eta, *espainiar* estatuan, eskuinak argitaratzen duen *Marca* kirol aldizkariaren orrietaraino ere iritsi omen dira. Eta beraiek horretaz harro daude. Marka da gero!

Kexu omen dira, Bilbon, Realari "a segunda" oihukatzen diotelako, aldiz, ez dute ezer esaten denontzat nabarmena den zerbaitetaz, hau da, *Espainiako* hainbat eta hainbat zelaietan, esaten dieten hitzik politena *asesinos* dela. Hala eta guztiz ere, Bilbotarrei zaunkaka eta beste horien aurrean isatsa jostalari mugitzen jarraitzen


dute. Kirolari dagokionez, adimena elikatzeko, lehen ere hemen aipatu izan dugun "periodikua" erabiltzen dute, eta hor ibiltzen dira, idiak nora, gurdia hara, han argitaratutako "azken berriak" tabernetako tertulietarako gidotzat hartuta. Denboraldi honetan "Zubiaurre kasua" dute gai faboritua. Futbola izaten dute hizketagai bakarra, ezer ez esanez isildu gabe egoteko.

Urtarrilaren 22an Realak eta Athleticen Anoetan jokatu zuten "derbi"ezaguna. Realaren golak *Danimarkako* jokalar batek eta *Turkiako* beste batek sartu zituzten eta Athleticenak, aldiz, Usurbilgo mutil batek eta Donostiako beste batek. Zer pentsatua eman behar lieke urtarrilean lau atzerritar erosiz hainbat milioi xahutu zituzten horiei.

Gaurkoan, inoiz izan dudana irakurle kopuru handiena izan dudala badakit (ez zen zaila marka haustea). Egia aitortze aldera, artikulu honen izenburuak probokaziotik badu laurden bat, edo erdia, agian hiru laurden ere bai, ez bainaiz ni (badaki Jainkoak) Athletic taldearen zaletua. Niri, edozein euskal talderen garaipenak ematen dit halako poz txiki bat, beraz, aupa Real!, baina baita ere, aupa Osasuna, Athletic eta Alaves!

"Futbol taldeek zorrak egin orduko, laguntzeko prest dituzte bankeak eta erakunde publikoak"

HITZ-GEZIDUNAK

		* IRUDIKO HERRIA	Joan dadila!	Soldatak
		Jakintza mota	Alegiazko izaki eme	Errepublikatuz, gorotza
		Sasi		
		Koipe		
				Bokala
				Bizkaiko ibaia
Ugariago egin	Ondorioa	Arloa		
Ugatzun haragijalea	Senideak	Edo		
			Nork atzikia	
			Ikas eta Ari	
Antzekotasuna				Toka, zaizu
Igaroak				
				Kontso-nantea
				Sugetzarra
3		Euskal lurraldea		
Iparro-rratza		Lehen bi bokalak		
			Röntgen	Interjekzioa
			Kontso-nantera	Nitrogenoa
Ezin ukatuzkoak				

PASARTE KODETUA

Koldo Izagirre (Pasaia, 1953) idazle gipuzkoarraren pasarte bat (*Sua nahi, Mr. Churichill?*, 2005) azalduko zaizu ondoko lauki guztiak bete ondoan. Joko honetan, zenbakiak hartu dute letra edo hizkien ordea. Letra bat, zeinek berea, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak eman ditugu lagungarri gisa.

11	12	1	12	3	6	17	16		4	6	14
9	1	12	15	6	17		11	12	10	6	14
	7	18	12	1		6	18	14	14	12	1
12	17	16		2	6	18	5	6		16	1
3	5	9	6		11	12	14	6		11	6
9	1	16		11	12	14	12	5	17	16	6
2	16	6		7	18	12	1	6		15	6
11	6	1	6		7	6					

1	N	11
2	E	12
3		13
4	R	14
5	Z	15
6	A	16
7	T	17
8		18
9		19
10		20

MARRAZKI BITXIA



Kolorezta itzazu atal puntudunak eta marrazki bitxia azalduko da.

ERANTZUNAK

Koldo Izagirre
Benetako marriak behar duen aurreneko gauza.
onzia bera baino berezkoagoa duena, labana da.

K	A	N	Z	A	K	U	
I	R	A	N	A	O		
A	B	A	R	A	I	I	
Z		K	A	N	A	G	A
		A	G	I	A	N	A
K		A	B	A	R	A	I
A		L	A	L	A	E	U
I		O	L	O			
R		H	L	A			
A		K	M	I	K		
S		B	V				

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Bazkaria

INISTORRA

Ekoizlea: **ERROITZ**
KALITU MUGATUA

Laguntzaileak:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren Andoaingo Udalerri Biltzarra eta Urnieta Inistorra Euskaltzaleen Biltzarra.

Egoitza Orokorra:

Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: aiurri@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Urnieta egoitza:

San Juan Plaza, 9 20130, Urnieta
Tel.: 943 331 455
@: urnieta@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.

Erredakzioa:

Ainhoa Gil, Aritz Gorriti, Jon Ander Ubeda eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.

Publizitate

Arduraduna: Fernanda Irazu.

Argazkilariak:

Xabier Ubeda.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia (Huarte-Iruñea).

Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870

Kudeatzailea:

Aitziber Arreseigor.

Banaketa

arduraduna: Xabier Ubeda.

Banatzaileak:

Andoain: Laida Jauregi, Elixabet Isasi. Urnieta: Ander Balda, Beñat Erkizia.

Agenda

APIRILAREN 7TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: 943 300 732 / aiurri@topagunea.com

Odol emaileak

Andoain

- Apirilak 11, asteartea
Anbulatorioa

Mendizaleak

Andoain

- Tortosa Aste Santuan
Apirilak 13,14,15,16 eta 17

Ibilaldi neurtua

Andoain

- Igantzi- Izu (829)- Artikutza- Goizueta- Errekalko- Andoain
Apirilak 23, igandea

Mendi krosa

Urnieta

- Urnieta-Adarramendi-Urnieta.
Apirilak 9, igandea
San Juan plaza, 11:00

Haur ibilaldia

Andoain

- Unanua- Goñi
Apirilak 23, igandea

Areto futbola

Urnieta

- 3. eta 4. posturako lehia.
Libreria Idiazabal- La Florida 165
Apirilak 8, larunbata, 17:30.
- **Finala:** Jone B.- Tsunami C.Araba
Apirilak 8, larunbata, 18:30



Eteneta

Urnieta

- Lehengo astean Adarramendira eginitako irteeran eginitako argazkiekin ikuskizun bat antolatu nahi da Aste Santuaren ondoren. Elkartean edota Egape ikastolan utzi daitezke argazkiak.

Santakruzak

Andoain

- Santakruzak 2006: apirilaren 28tik maiatzaren 3ra bitarte.
Kalejiran eta kantuan irteteko deialdia. Entseguak Gaztetxean.

Erakusketa

Andoain

- "Basurama"
Apirilaren 29ra bitarte, Bastero

Haur antzerkia

Andoain

- "Las mil y una noches"
Apirilak 9, igandea
12:00, Bastero

Musika

Andoain

- Donato Goyenecheren "Afrika" ikuskizuna, ostiral honetan.
Apirilak 7, ostirala
21:30, Bastero

Ikastaroa

Andoain

- La Salle Berrozpen langileentzako ikastaroak. Izen emateko telefono zenbakia: 943 59 05 57

- Tornu konbentzionaleko mekanizazioa. Hasiera: Apirilak 24. Iraupena: 80 ordu.

Antzerkia

Andoain

- "Ongi ibili" antzezlanak.
Apirilak 21, ostirala
21:30, Bastero

Hitzaldiak

Andoain

- Irakurzaletasuna sustatzeko hitzaldiak.
Apirilak 24 eta 26
18:30, Bastero

Ikuskizuna

Andoain

- Literaturaren inguruko "Hamar mezu eta dei bat" ikuskizuna.
Apirilak 27, osteguna
19:30, Bastero

PAZKO ASTEA

URNIETA

Kiroldegia, 11:00-13:00.

Apirilak 18, asteartea

Josta-Jolasa, 4-7 urte

Apirilak 19, asteazkena

Oreka zirko tailerra, 7-12 urte

Apirilak 20, osteguna

Herri kirolak, jolasak. Kulki

Apirilak 21, ostirala

Josta-Jolasa, 8-11 urte

ANDOAIN

Gazte Lokala.

Apirilak 19, asteazkena

Brotxkeen tailerra. 17:30

Apirilak 20, osteguna

Karts saioa Miarritzen.

Irteera ordua: 14:30

Apirilak 21, ostirala

Jokoak sarean. 17:30

Apirilak 22, larunbata

Ping-pong, dardoak. 17:30

Apirilak 23, igandea

Merienda.

UKE FUTBOLA

ASTE BURUAN ZER?

Erregionala, 1.maila

UKE-Beti ona. Lar, 15:45

Jubenilak, 1.maila

UKE-Allerru. Lar, 17:45

Infantilak

UKE- Trintxerpe. Lar, 11:30

EUSKALDUNA

ASTE BURUAN ZER? PARTIDAK

Erregionala, 1.maila

Euskalduna- Roteta

Lar, 17:15, Allurralde

Jubenilak, 1.maila

Euskalduna-Orioko.

Lar, 15:30, Allurralde

Kadeteak, 1.maila

Euskalduna-Aretxabaleta.

Lar, 11:00, Allurralde

Infantilak

Euskalduna- Amara Berri.

Lar, 12:45, Allurralde

Infantilak F-8

Lizeoa Beasain- Euskalduna.

Lar, 09:30, Beasain

Emakumezkoak

Ostadar- Euskalduna

Ig, 11:00, Mitxelín

Emakumezkoak F-8

Euskalduna-Touring.

Lar, 09:45, Allurralde

Alebinak

Hernani- Euskalduna.

Ig, 09:30, Hernani

Peña Santa Krutz Elkartearen irekiera

Apirilak 8, larunbata. 12:00, Andoaingo Kale Nagusia

- Danborrada txikia, herriko musikari ezberdinek bereziki inaugurazio ekitaldirako eskainiko duten emanaldia..., osagai proposak irekierarako. Herritar guztiei gonbidapena luzatu diete elkarteko arduradunek.
- Bertaratzten direnentzat ha-maiketako izango da.
- Elkarteko arduradunek gogorarazi nahi dute bazkide berriak egiteko aukera bada-goela. Sei-zazpi bazkide berri egin daitezke, oso modu egokian gainera.
- Interesatuek Emilio Iturriondobeitia Peña Santa Krutz elkarteko lehendakariarengana jo behar dute.

LEIZARAN ESKUBALOI TALDEA

EMAITZAK

Senior mutilak

Leizaran 27 - BKL-CAF 23

Senior neskek

Leizaran 21 - Basauri 25

Kadete neskek

Leizaran txiki 20-Kukullaga 15

Pulpo 21 - Leizaran 23

Infantil mutilak

LSB 28 - Peñafiorida 27

Ikastola 18- Egape 11

Infantil neskek

Peñafiorida 13-LSB/Ikastola 18

ASTE BURUAN ZER?

Senior mutilak

Ormaiztegi- Leizaran.

Lar, 18:00, Ormaiztegi.

Arrasate- Leizaran

Ig, 11:30, Arrasate

Senior neskek

Leizaran- Kukullaga

Ig, 11:30, Allurralde

Infantil neskek

LSB/Ikastola- Udarregi

Lar, 11:00, Allurralde

ASTEAZKENEAN BETERRI-AIZTONDO-BURUNTZA ESKUALDEETAKO HAURRAK ANDOAINEN BILDU ZIREN

Eskualdeko haurrak Pirritx eta Porrotxen DVD grabaketan

Egun berezia izan zen asteazkena haur askorentzat, izan ere, Pirritx eta Porrotx pailazoen Maite zaitut ikuskizuna eskaini baitzuten goizez eta arratsaldez Andoingo Bastero Kulturgunean. Gaine-

ra, ez zen ikuskizun soila izan, izan ere, DVD grabaketa egin baitzuten pailazoen.

Argazkiak: © Xabier Ubeda

kastetxeetatik goizean goiz atera eta kaldereroz jantzita, bostehun haur inguru bildu zen Basteron goizeko 10:00etarako. Urnietako Egape ikastolakoak, Andoingo Ondarreta ikastetxeak, Adunako herri eskolakoak eta Asteasuko Pello Errotako haurrak izan ziren Pirritx eta Porrotxen goizeko saioa ikusten.

Maite Zaitut ikuskizun berriaren DVD grabaketa egin zuten Lasarte-Oriako pailazoen. Haurrak, kaldereroz jantzita etorri ziren ikuskizunaz gozatera eta grabaketan parte hartzera. Azken asteotan pailazoen koreografia ikasten aritu dira ikastetxeetan. Basteron, entseguak ongi baino hobeto egin dituztela erakutsi zuten. Dantza eta kanta saio politik egin zituzten gehienek, eserlekuetatik jaiki eta gorputza astindu zuten musikaren erritimoa jarraituz.

Arratsaldean, Andoingo Aita Larramendi ikastolatik eta La Salle-Berrozpe ikastetxetik etorritako bostehun haur hurbildu ziren Basterora. Giro ederra sortu zen bazkalosteko



Egape ikastolako haurrak lagun egin zituzten Pirritx eta Porrotx pailazoen. DVD-a udazkenean argitaratuko da.

saioan ere. Aitona Anakleto, haren biloba Romi, Katuska hartza eta hartz txikia, erle txikiak eta beste hainbat pertsonaia izan ziren taulagainean pailazoen batera abentura politik bizitzen. Haurrek edeki gozatzeko aukera izan zuten.

Ikuskizuna amaitu ondoren, ezusteko polita jaso zuten haurrek, izan ere, opari sorta polita jaso baitzuten guztiek Aiurriren eskutik. Batetik, puzgarri bat eta bi pegatinaz osaturiko poltsatxo bat eta bestetik, Urnietako Iparlat enpresaren edateko yogurrak.

Pailazoen marrubizko muxu pila banatu zuten txikien artean eta pozez gainezka itzuli ziren haurrak ikastetxeetara.

Aiurriko lantaldeak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu zuten pailazoei, ikastetxeei, Iparlat enpresari eta Basteroko lantalde osoari.

Grabaketa Basteron



Haurrak ere taulagainean.



Giro ederra sortu zen kanpoaldean.



La Salleko ikasleak.



Larramendiko ikasleak.

Astigarragan

Squasch antzerkia

Teatro Mutante konpainiaren eskutik



Quique Gago, Maribel Salas, Begoña Bilbao

Apirilak 8 / 19:30 Kultur Etxean.
Sarrera: 3,5 euro



LAN ESKAINTZA

Erreformatarako esperientziadun igeltseroa behar da

Deitu:

615
748
661



Hedabideak sortu, garatu eta kudeatu

Argitalpenak taiutu, ekoiztu eta euskaldundu

Erroitz, b.m.
erroitz@erroitz.com.
943 300 732